



EBAZPENA, 2020KO UZTAILAREN 28KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO UZTAILAREN 9KO EBAZPENA ALDATZEN DUENA. EBAZPEN HORREN BITARTEZ BEHIN BETIKO EBAZTEN ZIREN 2020/2021 IKASTURTERAKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETAK OSASUN ARRAZIOAK DIRELA ETA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO MARTXOAREN SEKO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOAREN ARABERA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko uztailaren 9ko ebazpenaren bidez behin betiko ebazten ziren 2020/2021 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak osasun arrazoiak direla eta.

Egungo salbuespenezko egoera dela eta, Administrazio honetan epe barruan aurkeztutako alegazio eta erreklamazioak jaso ziren aurreko paragrafoan adierazitako deialdia ebazten zuen behin betiko ebazpena argitaratu ondoren. Gainera, lekualdatze-lehiaketaren prozedura eta deialdi hau aldi berean egin direnez, interesdunek horietako bat aukeratu behar izan dute, eta uko egin behar izan diote deialdiari behin betiko zerrendak argitaratu ondoren.

Aurrekoaz gain, NAN zenbaki, modalitate edo lurraldeen datuetan ofizioz intzidentziaren bat antzeman da, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 109.2. artikuluan dioenari jarraiki, "Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Aldatu I Eranskina, ebazpen honetan argitaratutako I Eranskinaren orde. Eranskin horretan 2020/2021 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak ageri ziren.

Bigarrena.- Aldatu II Eranskina, ebazpen honetan argitaratutako II Eranskinaren orde. Eranskin horretan 2020/2021 ikasturterako ez onartutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak ageri ziren.

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 28an.


 Jon Agirre Huerga
 LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
